

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

4/2023 Foru Agindua 2023ko urtarrilaren 13koa. Erroetan, Arraia-Maeztuko udalerriko lurzoru urbanizaezinean, hondakin urak arazteko sistema berritzeko proiektuaren interes publikoa adierazten duena

Erroetako Administrazio Batzarrak obra lizentzia eskatu dio Arraia-Maeztuko Udalari hondakin uren araztegia (HUA) berritzeko proiektua gauzatzeko, udalerrri horretako lurzoru urbanizaezineko 5 poligonoko 289 lurzatian.

Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Aurkeztutako proiektu teknikoan jasota dago gaur egun Erroetako herrian araztegi bat dagoela, Ebroko Konfederazio Hidrografikoko langileek ikuskatu dutena, eta instalazioak gaizki funtzionatzen duela antzeman da, espedientearen dagoen txostenaren arabera. Ondorioz, egun dagoen arazketa sistemaren ordez beste bat jarri nahi da. Sistema horretan, urak dekantazio-digestio sistema baten eta iragazki biologiko baten bidez tratatzen dira, eta hormigoizko andel aurrefabrikatuz osatuta dago. Arazketa sistema berriaren kokapena gaur egungo bera izango litzateke.

Udal arkitektoak egindako txostenean jasotzen denez, proiektuak lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako lurri eragiten die, Z6 "Trantsizioko Landa Paisaia Babesteko Zona" gisa sailkatuta daudenei, eta, udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioetan ezarritakoaren arabera, proiektatutako instalazioa kokatu daiteke, interes publikoa adierazi ondoren. Halaber, adierazten da proiektuak Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren baimena eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren polizia eremuan obrak egiteko baimena izan beharko dituela.

Eskaeraren berri eman zaie Natura Ondarearen Zerbitzuari eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, dagozkion informazio ondorioetarako. Natura Ondarearen Zerbitzuak jakinarazi du proiektuaren esparrua ez dagoela inolako naturagune babestutan sartuta, ezta fauna espezie katalogatuetarako interes eremuan ere. Ingurumen Jasangarritasunak txostena egin du adierazteko proiektua ez dagoela ingurumen ebaluazioaren prozeduraren mendeko kasuen artean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorrean eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legean jasorikoaren arabera.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuaren 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu batagina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzetik babesten duen eta landa egoeran dagoen lurzoruan, salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira.

Bat etorri 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzeko den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaratuak zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogeiguneguz jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren".

Azaroaren 28ko 322/2022 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onepena ematea eta hura 20 eguneguz jendaurrean edukitzeko aldia irekitzea, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Argitalpena ALHAOn 141. zenbakian egin zen, 2022ko abenduaren 9an, eta ez zen inolako alegaziorik aurkeztu hartarako emandako epean.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 86.2 artikuluan jasotakoaren arabera, uren arazketa toki erakundeentzat funtsezkotzat eta erreserbatutzat jotako zerbitzuetako bat da.

Ildo beretik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien berezko eskumenen artean ezartzen du zerbitzuak ematea hiri erabilerako uren ziklo integrean. Arlo honen barruan sartzen dira herriguneetako hiriko hondakin uren eta euri uren saneamendua edo bilketa eta hiriko hondakin uren arazketa. Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko 11/1995 Foru Arauaren 7. artikuluan jasotakoari jarraituz, erakunde horiei tradizionalki dagozkien eskumenen artean aitortzen da "Erakundearen jabetzakoak izanik, jendeak erabiltzen dituen instalazioak eraiki, handitu, kontserbatu eta konpontzea", bai eta "Kontzejuaren barrutian, interes berezia duten obrak (...) burutzea eta bestelako zerbitzuak ematea" ere.

Proiektuaren kokapenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) 42. artikulua landa lurzoruan baimendutako erabileren artean ezartzen ditu komunitate ekipamenduetarako instalazioak, publikoak edo pribatuak, beren izaera eta ezaugarriengatik landa ingurunean nahitaez kokatu behar diren zerbitzuak ematera bideratuak, alde aurretik onura publikokotzat edo gizarte interesekotzat adieraziak, eta berariaz adierazten du zerbitzu publikoen ekipamendua, "beren ezaugarri funtzionalengatik, bateraezinak izan baitaitezke batez ere beste erabilera batzuetarako diren zonetan ezartzeko".

Aztertutako kasuan, interes publikoa proiektuaren izaerak ematen du, zeinaren xedea baita hondakin uren kolektoreen eta kasuan kasuko uren saneamendu, arazketa eta tratamendu instalazioen zerbitzuak ematea. Halaber, justifikatuta dago instalazioa kokaleku zehatz horretan kokatzea, azpiegiturak berak dituen ezaugarriak direla eta.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, honako hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Adieraztea honen interes publikoa: Erroetako Administrazio Batzarrak hondakin urak arazteko sistema berritzeko sustatutako proiektua, 5 poligonoko 289 lurzatian, Arraia-Maeztuko udalerriko lurzoru urbanizaezinean.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal baimena lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, hilabete biko epean; edonola ere, berraztertze errekurtsua jarri ahalko zaio, nahi izanez gero, egintza eman zuen organoari berari, hilabete epean, bat etorri Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin, edo egoki deritzon beste edozein errekurtsu ere aurkez daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 13a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO